



Osoko bilkuran hartutako erabakiak

Agoizko Udalak pasa den apirilean egindako Osoko Bilkuran erabaki zuten Agoizko Udalaren eta Sarean kolektiboaren arteko hitzarmena sinatzea. Lankidetzaren helburua da Bidezainen Etxeak izandako etxebizitzetako bat doan uztea kolektiboari, interes publiko edo sozialetarako erabiltzeko.

Halaber, lan anitzetan lanaldi osoz aritzeko (lau hilabeteetan) lau langile kontratatzeko oinarriak onetsi ziren. Datorren maiatzaren 16an hasiko dira, eta udako hilabeteetan zehar arituko dira.

Hauexek dira Osoko Bilkuran aztertu eta zinegotzien adostasuna lortu zuten beste gai batzuk:

- Erremonte Fundazioko kirol hitzarmenak.

- Herriko zenbait entitatereantzako dirulaguntzak: Umafy, Guraso Elkartea eta San Migel Ikastetxe Publikoa.

- Euskara Arloko dirulaguntza deialdiak eta hitzarmenak.

Osoko Bilkuran egon ziren, lehen aldiz, udal txikiko zinegotziak, arreta eta interes handia jarri ziotenak bileran gertatutako guztiari. Unai Lako alkateak zehaztu zituen egunean aztertu beharreko gai guztiak eta azaldu ziren udal bilkuretako prozedura.

Aurki, Udal Txikiak egingen du bere bilkura berezia, eta udalari helaraziko dizkio bere proposamen eta iniziatibak.



Agoizko APP ofiziala eta partaidetza foroa

Agoizko Udalak herritarrek informatzeko eta haien parte-hartzea sustatzearen aldeko apustua egingen jarraitzen du. Horretarako, bi tresna digital estreinatu berri ditu.

Telefono mugikorretarako aplikazio ofiziala prest dago, doan jaitsi daiteke, eta haren bidez zabalik dago herritarren eta udalaren arteko komunikabidea, bando, abisu, jakinarazpen, telefono interesgarriak, ekitaldiak eta abar jakinarazteko, edo izandako gertaeren berri emateko.



Mugikorrentzako aplikazioa doan jaitsi daiteke esteka honen bidez: <http://aoiz.app-ayuntamiento.es>

Gainera, atal bat prestatu da udaleko web orrian, herritarren parte-hartzea sustatzeko. Tresna berriarekin, herriarekin zerikusia duen edozein gairi buruz eztabaidatzeko aukera dago.

Hau da foroaren esteka: www.aoiz.es/general/foro/

Tximista bat erori eta kalteak eragin ditu

Pasa den apirilaren 2an Agoizko hirigunean bereziki nozitu zen elizaren ondoan eroritako tximista.

Gertatutakoaren ondorioz (ez zuen inolako kalte material edo pertsonalik eragin), udaleko, epaitegiko eta inguruko bulegoa eta negozioetako aktibitatea eten egin zen.

Telefonoak eta internet zerbitzua erabiltezin gelditu ziren, eta

udaletxea izan zen kalte gehien pairatu zituen lekua: zerbitzari zentrala, bi ordenagailu, fatxadako erlojua eta bandoak botatzeko aparailua.

Hiru egun geroago berrezarri ziren zerbitzu gehienak, baina oraindik ikus dezakegu udaletxeko fatxada nagusian tximista zein ordutan erori eta eten zuen Agoizko aktibitatea: 14:20ean.



Irati trenaren Natur Bidea

Irati trenaren Natur Bideak ukitutako udalerrietako ordezkariak Aosen elkartu ziren elkarren arteko adostasun dokumentu bat sinatzeko. Horren helburua da berreskuratze proiektua exekutatzen MAPAMAK (Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurune Ministerioa) eskatu dituen hainbat konpromisori buruzko adostasun dokumentua sinatzea. Konpromiso horiek dira, besteak beste, lurra eskuratuta edukitzea, horien mantentzen zuzentzea eta ondarearen erantzule izatea.



Egintza horrekin, udalek bukatutzat eman dute Irati Trenaren trazadura berreskuratzeko proiektua garatzeko aurretik egin beharreko lanak, eta orain proiektu hori estatuko aurrekontuetan islatzea baino ez da behar.

Udalek beren Osoko Bilkuretan onetsi zituzten konpromiso horiek, Ministerioak exijitzen duen moduan.

Bestalde, Eguesko Udala eta Iruñerriko Mankomuni-

tatea lanean ari dira Eguesibarko Uztarrotz eta Uharte lotzeko proiektua erredaktatzeko, eta horrekin lotuta geldituko lirarteke Iratiko Naatur Bidea eta Argako Ibai Parkea.

HITZALDI INFORMATIBOA, TRAGSA-REKIN, OBRAK EXEKUTATUKO DITUEN ENPRESAREKIN.

Pasa den apirilaren 7an, Udaletxeko Aurelio León Aretoan, TRAGSA enpresako bi teknikarix xehe-xehe azaldu zituzten nola egingen ziren Iratiko Bide Berdea egokitu eta berreskuratzeko lanak.


Jarduketak eragingo duen eremuaren luzera 56,6 km-koa da, eta udalerrri hauetan zehar: Uztarrotz, Lizoain, Urrotz, Agoitz, Longida, Urraulbeiti, Irunberri, Ledea eta Zangoza. Obra exekutatzen onetsitako aurrekontua 3.600.000 €koa da, eta gobernu zentralerako Natur Bideetako departamentuak finantzatzeko du. Exekuzio epea, berriz, 3 urtekoa izanen da.

Honako hauek dira aurrikusitako lanak: bide-gurutzeak egokitzea, drainatze-lanak, seinaleztapena, pasabideak egitea (5 metaliko eta egurrezko beste 5), argiztapena eta azpiko pasabideak egitea.

Agoizko jarduketak izan dira: zoladura egokitzea, drainatzea eta seinaleztapena jartzea, Irati trenaren trazadura zaharrak Agoitzen zituen 2,59 kilometroetan.

Une honetan, Madrilen proiektuaren ikuskapen teknikoa egiten ari dira.

ASPACE Nafarroaren 30. Urteurrena



ASPACE Nafarroa ospakizunetan dago, izan ere, aurten Enplegu Zentro Bereziak 30 urtea beteko ditu. Hori dela eta, pasa den apirilaren 5ean ospakizun handia egin zuten Iruñeko Zentral aretoan.

eta entitate publiko eta pribatuak. Agoizko Udalak ere jardunaldian parte hatu zuen.

Ekitaldia entitatearen historia-
ren zehar ibilalditxo bat egiteko

Ekitaldira 300 bat pertsona bertaratu ziren: gizarte-arloetako ordezkariak, ASPACEko langileak eta kideak, enpresa kolaboratzaileak

balio izan zuen. Topaketan honako hauek hitza hartu zuten: Juana Zalba Aspace Nafarroa Fundazioko presidentea, Luis Antonio Gómara Aspace Nafarroako presidentea eta Miguel Laparra Nafarroako Gobernuako Gizarte Eskubideetako presidenteordea. Horrek zorionak eman zizkion Enplegu Zentro Bereziari eta lan-gizarteratzearen alde erreferentetzat hartu zuen. Agoizko Udalak ere bat egiten ditu egindako adierazpen horiek.

Torturatuak izan diren emakume nafarrak: Egia, Justizia eta Erreparazioa

Pasa den apirilaren 5ean Nafarroako Foro Sozial Iraunkorrek *Torturatuak izan diren emakume nafarrak: Egia, Justizia eta Erreparazioa* izeneko topaketa antolatu zuen.

Ainhoa Aznárez Parlamentuko presidentea eman zion elkarguneari Eskuzabaltasuna, adiskidetzarako zubia mintzaldiarekin.

Aurkeztu eta, lehenengo mahai ingurua egin zen, *Emakume bezala torturatu ninduten* izenaren azpian. Hamarkada desberdinetan torturatutako emakumeek bere esperientzia azaldu zuten. Hauexek ziren: Gloria Bosque Ezker (1973), Mertxe Gonzalez Portillo (1983), Marilo Gorostiaga (Años 90), Ainara Gorostiaga Eskubi (2002) eta Izaskun Juarez Goñi (2010). Moderatzaile lanetan, Yolanda Resano.

Torturari buruzko bost bizipen zirraragarriak izan ziren.

Ondoren, Begoña Uhartek, Nafarroako Foro Sozialarenak, hitza



hartu eta torturak gizarte osoak heldu behar duen gaia dela adierazi zuen, izan ere bolumen handiko afera da (693 testigantza jaso dira Nafarroan eta beste 4.009 Euskal Erkidegoan). Datu horiek agerian uzten dute zein izan den gaiak eragindako sufrimendua.

Bigarren mahai inguruak (*Torturatuak izan diren emakumeak eta elkarbizitzaren eraikitzea*) bi hizlari izan zituen: Maider Caminos Miranda, Tortura genero ikuspegitik aztertzeke arrazoiez *hitz egin zuena*; eta Jeanette Ruiz Goikoetxea, *Estam-*

buleko protokoloaz eta torturaren oinazeez aritu zena.

Nafarroako Parlamentuko biltzar aretoa txiki eta mutu gelditu zen torturarekin hizlariak izan zuten esperientziaren inguruan emandako adierazpenekin latz eta hunkigarriekin. Tortura, genero ikuspegitik begiratu.

Agoizko Udalak saioan parte hartu zuen, beste udaletako eta elkarteetako ordezkariekin batera.

Lurraren Eguna

Pasa den apirilaren 22an ospatu zen Lurraren Eguna. DATA OSPATZKO, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak ekitaldi sinbolikoa antolatu zuen honako lemapean: "EMAN ZURE KONPOSTA komunalarri". Pasa den urtean Ekain egin zen, eta bertan landatutakoz uhaitz berriei bota zitzaien sortutako konposta.

2017. urte honetan ekitaldi berdintsua egin da, Untziti herriko Txalabarko alderdian. Pasa den otsailean zuhaitz batzuk landatu ziren han, Untzitiko kontzejuak bultzaturiko birlanaketa proiektua garatzeko. Guztira 1.130 zuhaitz-oin landatu dira.

Agoizko Udala bertaratu zen, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak egindako gonbiteari erantzunez, eta ekitaldi sinboloko horretan parte hartu zuen, udalak ere uste baitu oso garrantzitsua dela herritarrei ohartaraztea lurra zaintzeko eta elikatzeko beharraz, klimaren aldaketak gure inguruan duen eragina galarazteko.



Diploma banaketa, zuhaitzaren eguna dela eta

San Migel Ikastetxeko Lehen hezkuntzako 4. Mailako ikasleek aktiboki parte hartu dute zuhaitzaren eguna dela eta antolatutako aktibitateetan. Urtero, maila horretako ikasleek lan zehatz bat egiten dute, natura eta gure inguru hurbilena zaintzearen garran-

tziar ohartarazteko. Egindako ahalegina eskertzeko, udalak diploma batzuk eman zizkien eta hurrengo urteetan zuhaitzak zaintzeko gonbitea luzatu zien, horrela egindako lana ez da alferrik izanen.



“Gazteok mugimenduan”. bigarren edizioa

Gazteok Mugimenduan Udalak, Kanpondoak eta Txinparta Gazte Mugimenduen bultzaturiko eta gazteei zuzendutako aisialdi programaren bigarren edizioa hasi da. Garatu beharreko aktibitateak gazteekin adostu, eta 2017ko egutegia ofizialki aurkeztu zen Kultur Etxean. Negu honetan elurretan eman dute



asteburu bat, eta datozen hila-beteetarako honakoa aurrikusia dute: ibilaldi bat egitea Iratin barna (maiatzaren 27an), zaldiz ibiltzea eta arku tiroa egitea (ekainaren 25ean), multiabentura jardunaldia Murillo de Gállegon (uztailaren 15 eta 16an), zunba-spinninga (abuztuaren 9an) eta surfa (irailaren 2a).

Agoitz Korrikarekin

“Batzuk” lemapean garatu da 20. Korrika, eta Nafarroa osoa goitik behera zeharkatu du. Aurten, lasterketa ez zen Agoitzera ailegatu; hala ere, Udala kilometro bat eros izuen, gure hizkuntzarekin duen konpro-

misoari jarraikiz. Oibarren egokitu zitzaion, apirilaren 1ean. Kilometro batzuk aurrerago, Zangozan, lekukoa hartu zuten San Migel ikastetxeko irakasle eta ikasleek, 0-3 urtekoen ikastetxeko guraso, langile eta

umetxoek eta Irati Antzerki taldeko kideek. Apirilaren 2an, Angiluerreka elkarteko kideek goiz altxatu behar izan zuten Luzaideren inguruan korrika egiteko.



Korrika txiki Agoitzera ailegatu zen

Korrikaren 20. Edizioa dela eta, Agoitzen egiten ohi den moduan, San Migel ikastetxeko ikasleek eta irakasleek herriko kaleak zeharkatu eta girotu zituen Korrika Txikian parte hartu zuten.

Ekitaldia ikastetxeak antolatuta



zuen, AEKren, Guraso Elkartearen eta familien laguntzarekin, eta arratsalde bero bat bete egin zuten.

Berriro ere, Agoitzek bat egin zuten euskararekin, eta bere atxikimendua adierazi zuten, lasterketa honetan parte hartuz.



Euskal Herriko Itzulia

Pasa den apirilaren an Agoitzen ondoan pasa zen Euskal Herriko Itzuliaren lehenengo etapa, Iruñea eta Sarrigurenen artean garatu zena. Arratsaldeko lau eta erdietan izan zen, eta agoiztar asko errepidera bertaratu zen lasterketa pasatzen ikusteko eta haien txaloekin txirrindulariak animatzeko. Gainera, albisteen emanaldian EITB-ek eginiko kronikan gure herriari buruzko aireko ikuspegi ederrak bota zituen, gure historiari eta ohi-turei erreferentzia egiten zien narrazio batekin batera.

Liburuaren egunaren kariatara antolatutako ekitaldiak

Urtero apirilean egin izan duen moduan, Agoizko Udalak hainbat aktibitate antolatu ditu liburua protagonista zela.

Hala, Narrazio Laburren XI. Lehiaketa antolatu du, Lehen Hezkuntzako eta DBH-ko ikasleei zuzendurikoa. Sariak banatzeko ekitaldia Kultur Etxean egingen da, heldu den maiatzaren 18an.

Gainera, "topaketak idazleekin" izeneko programa garatu da. Horri

esker, ikastetxeko Lehen Hezkuntza eta DBH-ko ikasleek Arkaitz León Muela Lakabeko idazleekin aldaratu dituzte bere lanari buruzko iritzia eta usteak. Arkaitz León Muela Agoizko ikastetxeko ikasle ohia da.

Horretaz gain, liburutegian bi libururen aurkezpena izan dugu, haien egileen eskutik. Lehenengoa, BAMBU 100 Haikus izenekoa; Inma Biurrun, Patxi Muruzábal, Josune Espartza eta María Loyola poesia idazle nafarrena testuak jasotzen

dituena. Ekitaldia desberdina izan zen, izan ere, idazleetako batek, Patxi, txirula joz musika fondoa jarri zion ekitaldiari.

Beste liburua hurbilagoa da, trama garatzen den lekua kontuan hartuz gero. Jesús Ballaz ledearrak idatziriko El tren que se zamparon los ratones nobela, fikziozko istorio bat, umoretsua, fantasiaz betea eta irakurterraza. Bertan kontatzen digu nola desagertu zen Irati tren.



Apirileko kultur balantzea

Apirilean zehar hainbat kultur ekitaldi egin dira, eta partaidetza handia izan dute.

Gure inguruan bizi diren narratiak eta anfibioen aberastasuna ezagutzeko aukera izan genuen Ramón Aranbarriren 25 argazkirekin Vanessa Sarasolak antolatutako erakusketan. Biak Aranzadi zientzia elkarteko kideak dira. Erakustaldiak 178 bisitari izan zituen, eta, horietaz gain, ikastetxeko ikasleak ere hurbildu ziren.

San Migel Abesbatzak Aste Santuan egiten ohi duen eliz musikako kontzertuan, errepertorio anitza eskaini zuen.

Musika Eskolak ere kontzertu didaktikoa eskaini zien Agoizko, Urrozko eta Lakabeko ikasleei. Kontzertua entretenigarria eta dinamikoa izan zen, eta bertan eskolako ikasle eta irakasleek instrumentuen aniztasuna erakutsi zuten. Disney filmetako abestiak interpretatu zituzten txistu, soinua, klarinetea, saxoa edo abarrez.

Peter Pan Kultur Etxera ailegatu zen DBH-ko laugarren mailako ikasleen eskutik. Irati Antzerki Taldearen laguntzarekin prestatu zuten obra, hunkigarria, imajinarioz eta fantasiaz betea. Zorionak, artistak!!

Dánzalo dantza eskolak bukaera benetan ikusgarria eman zion apirileko kultur aktibitateen programari. Mary Poppins obra taularatu zuen, eta eskainitako bi saioetan Ez dago sarrerarik iragarri behar izan zen.

